



## HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

## HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

EBAZPENA, 2025Eko martxoaren 26koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aparteko deialdi bat ezartzen baita irakasle finko eta hezitzaile finkoentzako adinagatik eskola-orduak/zuzeneko arreta murrizteari buruz, 2025/26 ikasturterako.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboak (2004ko ekainaren 17ko EHAA), 51. artikuluan, ordutegi-murrizketak arautzen ditu, esanez: *"60 urtetik gorako langileentzat ordu-murrizketak ezarriko dira. Batzorde Parekideak baldintza hori aplikatzeko formulak ezarriko ditu. Sektore horretako ezaugarri bereziak alde batera utzita, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionario publikoen sektorean irudi horretarako erabiltzen direnen antzekoak izango dira. Neurri hori 55 urtetik gorakoentzat zabal daiteke apurka-apurka, betiere langile kopurua kontuan hartuta"*.

Irakasle Funtzionarioen Mahai Sektorialaren 2018ko maiatzaren 14ko akordiorako proposamenak 11. apartatuan aurreikusten du adinagatik irakastorduak murriztea, eta adierazten du proposamen horren helburu nagusia dela lan-karga arintzea adin batetik aurrera borondatez erretiratzeko aukerarik ez duten langileei, eta, aldi berean, belaunaldi-erreleboari laguntzea.

Mahai Parekidea 2022ko otsailaren 15ean bildu zen gai hori aztertzeko, eta aurten egin da murrizketa honi buruzko hirugarren deialdia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren 2023ko ekainaren 8ko Epaiaren bidez, 2023/24 ikasturterako deialdiaren prozedura atzera eramateko agindua eman zen, lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoek eta bitartekoek lanpostu hutsetan parte hartu ahal izan zezaten. Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduak epai hori betetzea xedatu zuen. Epai horren arabera, prozedura atzera eraman behar zen aldi baterako langile guztiak murrizketa hori eskatu ahal izateko. Deialdia ebatzi zen, lanpostu hutsetan zeuden lan-kontratu mugagabedun eta bitarteko langileak berariaz sartuta, baina ez zen deitu ordezkapen-kontratudun edo ekoizpen-beharretarako kontratupeko langilerik. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salak, 1038/2023 gatazka kolektiboari buruzko 2024ko ekainaren 20ko autoan, berretsi zuen aldi baterako langile guztientzat deitu behar zela, azken bi kasu horiek barne.

Horren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

LEHENENGOA.- Xedea.

Ebazpen honen xedea da adinagatik irakastorduak/zuzeneko arreta murrizteko eskaera-prozedura ezartzea, ebazpenean ezarritako baldintzetan.

BIGARRENA.- Aplikazio-eremua.

Deialdi hau honako langile hauei aplikatuko zaie:

a) Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez-finkoak edo lanpostu hutsetan dauden bitartekoak eta ordezkoak (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak,





zeinu-mintzairaren interpretea eta terapeuta okupazionalak), 2025eko abuztuaren 31n 59 urte dituztenak (60 urte bete gabe).

Irakasleei asteko bi irakastordu murriztuko zaizkie, eta hezitzaileei, berriz, asteko bi zuzeneko arreta.

b) Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez-finkoak edo lanpostu hutsetan dauden bitartekoak eta ordezkioak (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-mintzairaren interpretea eta terapeuta okupazionalak), 2025eko abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago badituzte eta erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

Irakasleei eskola-orduen herena murriztuko zaie, eta hezitzaileei (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzaren interpreteak eta okupazio-terapeutak) zuzeneko arretako orduen herena, ebazpen honen 3.a) atalean aurreikusitakoa kontuan hartuta.

HIRUGARRENA. – Betekizunak.

Bigarren ebazpen-zatian adierazitako langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 2025/26 ikasturterako, irakasle finkoek edo aldi baterakoek gehieneko eskola-lanaldia esleituta izatea (hau da, apartatu honetako c eta d betekizunak betetzea), eta hezkuntza-langile finkoek edo aldi baterakoek (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzako interpreteak eta terapeuta okupazionalak) zuzeneko arretako gehieneko orduak esleituta izatea. Hezkuntza-laguntzako espezialisten kasuan, zuzeneko arretako 30 ordura iristen ez direnen eskaerak ere onartuko dira, baina heren bateko murrizketa 30 orduko gehieneko zuzeneko arretaren gainean kalkulatu da, hau da, 20 orduko zuzeneko arreta eman beharko dute.

b) Kontratu hori 2025/26 ikasturte osorako ziurtatuta edukitzea. Ordezkapen-kontratuen kasuan, kontratuaren arrazoiak gutxienez 2026ko abuztuaren 31ra arte iraun behar du.

c) Erretiro partzialeko egoeran ez daudenak edo 2025/26 ikasturtean erretiro partziala hartuko ez dutenak.

d) Deialdi espezifiko baten bidez zerbitzu-eginkizunik esleituta ez izatea, ezta lanaldi-murrizketa bat ere 2025/26 ikasturterako.

e) Beste jarduera batzuetan aritzeagatik (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak) edo osasun-arrazoiengatik eskola-orduen murrizketarik ez izatea 2025/26 ikasturtean.

f) Bigarren jarduera batean zerbitzurik ez ematea.

g) Murrizketa-orduak ikastetxeko zuzendaritzaren esku jartzea, eta, betiere, ikastetxean egoteko orduak izatea.

2025/26 ikasturterako eskola-orduen/zuzeneko arretaren murrizketa hori baimentzeko, betekizunak bete beharko dira ikasturte osoan (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra).

LAUGARRENA.- Ordutegi-murrizketa aplikatzeko irizpideak.

Ordu-murrizketa ikastetxeko irakaskuntza- eta antolaketa-premiekin bat datozen irizpideen arabera aplikatuko da. Premia horiek zuzendaritza-taldeak ezarriko ditu.



BOSGARRENA.- Eskabideak.

1.- Eskabidea.

Eskaera HEZIGUNEA atariaren bidez egin beharko da (<https://hezigunea.euskadi.eus>), bannerretik ("Eskola-orduen murrizketa/adinagatikozuzeneko arreta: lan-kontratuko langile finkoak"), eta beharrezkoa izango da eskatzailea aurrez identifikatzea (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, baldin badago).

Eskabidean, zerbitzuak ematen ari diren zentroaren kodea bete behar da, eta, horretarako, I. eranskina argitaratu da.

SEI GARRENA.- Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea.

Eskola-orduen murrizketa/zuzeneko arreta eskatzeko epea 2025eko martxoaren 26tik apirilaren 7ra bitartekoa izango da, biak barne.

Murrizketa-eskaera ebazpen honetan ezarritako epean egiten ez dutenek bertan behera utziko dute 2025/26 ikasturterako eskatzeko eskubidea.

2025/2026 ikasturtean adinagatik eskola-orduen murrizketa duten pertsonak berriz egin beharko dute eskaera, eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu.

Azken urtean emandako murrizketa ez da automatikoki luzatzen, eta urtero eskaera berri bat egin behar da hori emateko.

ZAZPI GARRENA.- Dirulaguntza emateko ebazpena.

- a) Eskabideak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena argitaratuko da.
- b) Behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea igaro ondoren, eta aurkeztutako alegazioak ikusita, hala badagokio, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin betiko ebazpena argitaratuko da.
- c) Eskatutako murrizketak onartzeko eta ukatzeko ebazpena, jakinarazpen-ondorioetarako, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>).
- d) Murrizketa horri ezin zaio uko egin.

ZORTZI GARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Zure datu pertsonalak tratatu eta "Langileen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.



#### Legitimazioa:

- Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua.
- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean, botere publikoen izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa (2004ko ekainaren 17ko EHAA).
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

#### Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/clusulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-capa2-es.shtml>

#### Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).

#### BEDERATZI GARRENA.- Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka, demanda aurkeztu ahal izango da lan-arloko jurisdikzioan, ebazpena argitaratu eta 2 hilabeteko epean, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 10.4.a) artikuluan – 6.2.b) artikuluekin lotuta – eta arau horren 69. artikuluan – urriaren 1eko 39/2015 Legeak emandako idazketan – ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 8a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Izpta.: BLANCA GUERRERO OCEJO